

ERAIKUNTZA BERRIKO OBRAK GAUZATZEA – Bikaintasun maila

Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda: Ingurumen- irizpideak



1. ERANSKINA: ESKAKIZUNAK

Markatu BAI zutabeko laukia, nahitaezko espezifikazio minimo guztiak eta baloratzekoak betetzen dituzula baieztatzeko. Nahitaezko irizpideak bete ezean edota betetzen dituzula egiaztatzen duen abalik aurkeztu ezean, eskaintza ez dugu kontuan hartuko esleipen-prozedurako hurrengo faseetan.

Baloratzekoak diren espezifikazioei dagokienez, espezifikazioa betetzen dela egiaztatzeko abalik aurkeztu ezean, atal horretan punturik gabe geldituko da eskaintza. (Puntuazio horrek abantaila gehien duen eskaintza identifikatzeko balio du).

ENPRESAREN IZENA:				
NAHITAEZKO IRIZPIDEAK	BAI		ABAL MOTA	ESKAINTZAREN ORRIA
Obraren Ingurumen Kudeaketa Plana ezartzea	<input type="checkbox"/>		1	
Hondakinen Kudeaketa Plana ezartzea	<input type="checkbox"/>		1	
Gutxienez uraren eta elektrizitatearen kontsumoak monitorizatzeko eta erregistratzeko ekipamenduak instalatzea	<input type="checkbox"/>		1	
Legezko iturrietatik eta mehatxatu gabeko espezieetatik datozen zura eta zurezko produktuak erabiltzea	<input type="checkbox"/>		1	
E1 ohol aglomeratuak erabiltzea	<input type="checkbox"/>		1	
Metal astunik gabeko zoladurak eta aire zabaleko esposizioa duten beste material batzuk erabiltzea	<input type="checkbox"/>		1	
1. AUKERA: Obra fasean egindako Ingurumen Jasangarritasunaren Kalifikazioaren kalkulua egitea, «Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren gidak» eskuliburu etako metodologiaren arabera. Gidak webgune honetan daude: http://construccionsostenible.eus	<input type="checkbox"/>		3	
BALORATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK	PUNTUAK (%) ¹	BAI	ABAL MOTA	ESKAINTZAREN ORRIA
1. AUKERA				
Proiektuaren Ingurumen Jasangarritasunaren Kalifikazioa (IJK) hobetzea, Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren giden metodologiaren arabera		<input type="checkbox"/>	2	



¹ Adjudikazio-irizpideetan ingurumen-alderdietarako zehaztutakoaren arabera.

2. AUKERA				
MATERIALAK: Agregakin birziklatua, proiektuan ezarritakoez beste erabilera egoki batzuetan.		<input type="checkbox"/>	3	
Material birziklatu gehigarriak sartzea, proiektuan aurreikusitakoez eta plegu honetan espezifikazio tekniko gisa ezarritakoez gain		<input type="checkbox"/>	1	
Produktuaren Ingurumen Adierazpenak (PIA) edo baliokideak dituzten materialen kopurua		<input type="checkbox"/>	4	
Lehengaien kontsumoa, hondakinen sorrera edo obraren karbono-aztarna murriztera bideratutako materialak, produktuak eta eraikuntza-sistemak		<input type="checkbox"/>	1	
HONDAKINAK Hondakinen kudeaketa prebenitzeko eta optimizatzeko haututako neurriak		<input type="checkbox"/>	1	
BARNEKO AIREAREN KALITATEA: Lurzoruak eta estaldura bertikalak konposatu organiko lurrunkorren (KOL) emisio gutxikoak		<input type="checkbox"/>	1	
Pinturak eta bernizak I. motako etiketaren konposatu organiko lurrunkorren (KOL) emisio maila		<input type="checkbox"/>	5	

JARRAIBIDEAK

«**ABAL MOTA**» zutabean, baloratzekoa den espezifikazio edo irizpide bakoitza betetzen dela ziurtatzen duten ingurumen-ziurtagiriak, ekoetiketak edo dokumentuak sartu dira, edota informazio hori jasota duen dokumentazioa; hala ere, beste mota bateko egiaztagiri baliokideak ere onartuko dira, baldin eta ezarritako irizpideak betetzen direla argi adierazten badute.

Dokumentuek honako zenbaki hauek dituzte:

1.	Enpresaren konpromiso-adierazpena eta neurriaren xehetasuna
2.	« Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren gidak » (http://construccionsostenible.eus) aplikatzearen ondoriozko dokumentua: emaitzen fitxa, eskuratutako puntuazioa eta aplikatu ez diren edo aplikatu ezin diren neurrien justifikazioa
3.	Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidako kalkulu-tresna; Ihoberen webgunean eskura daiteke: https://www.ihobe.eus/publicaciones/guia-para-uso-materiales-reciclados-en-construccion-2
4.	PIA edo baliokidea edukitzea eskatuko zaien materialen zerrenda 
5.	I. motako etiketa (Europako etiketa ekologikoa, aingeru urdina...) edo baliokidea duten lurzoruen estalduren, hormen estalduren, pinturen eta bernizen zerrenda. 

«**ESKAINTZAREN ORRIA**» zutabean, lizitazio-dokumentuan abala zein orrialde edo eranskinetan erantsi den adieraziko da.